

Gure konpromezua **langile denen segurtasun eta osasuna babestea da**, lan istripu eta gaixotasun profesional denak ekidin behar direlaren uste sendoa daukagularik.

Horretarako, **akzio prebentiboen etengabeko hobekuntza** ardatz bezela hartzen dugu; honen barnean, osasun prebentzio eta babes akzioak martxan jartzea, larrialdien aurrean nola jokatu lantzea, lana pertsonaren ezaugarrietara atxikitzea, produktu eta lan-ekipamendu zuzenak aukeratzea, enpresen arteko koordinazioa zuzen kudeatzea eta prebentzioaren alorrean dauden obligazioak betetzea daude, besteak beste. Gure bezeroen zerbitzura gaude, gure gizartearekin, ingurumenarekin eta lantalde osoaren osasunarekin erabateko konpromezua daukagu.

Lan istripuak edota edozer min-hartze batez ere kudeaketan akatsak daudelako gertatzen dira eta horregatik kudeaketa zuzen batekin ekidin daitezke, kudeaketa zuzen horrek identifikazio, ebaluazio eta kontrola beharrezko duelarik.

Zuzendaritzan gauden guztiok eta baita departamentuko buru diren guztien erantzunkizuna da prebentzioa eta horregatik kalitate eta produktibitatea bezain garrantzitsu dela argi izan behar dugu denok.

Enpresak akats eta hutsune horien eta izan daitezken hobekuntza proposamenen komunikazioa ahalbidetzeko baliabideak sustatu eta martxan jartzen ditu, analizatuak izan daitezen eta ahal den heinean aplikatuak. Gure enpresaren etorkizunean oso garrantzitsua da parte-hartzea, berrikuntza eta etengabeko hobekuntzaren maila berdinean.

Pertsonak enpresa bateko balore garrantzitsuenak dira. Hori dela eta, trebatuak eta helburuekin bat egon behar dira eta beraien iritziak ere kontuan hartu behar dira. Arriskuen formazio eta informazioa eta hauek ekiditeko martxan jartzen diren baliabide eta akzioak ere oso garrantzitsuak dira eta enpresako pertsona guztiengana iritsi behar dira.

Prebentzio planean jarraitu beharreko akzioak definitzen dira. Lantalde osoak izan behar du bere berri. Prebentzio politika bat martxan jarri eta aurrera eramateko, enpresak bere langileen parte-hartze aktiboa behar du eta baita hauen ordezkaritza daukaten organuena ere, denon artean lan inguru seguru bat lortuko dugun asmo sendoa daukagu.

Mendaro, 2020ko Urtarrilaren 21a



Zuzendari nagusia